

OINARRIAK: II. Edizioa - 2023ko Gizarte Kontseiluaren Saria Donostiako hiritarren ekimen onenari

1. Deialdiaren deskribapena

Donostiako Gizarte Kontseiluak, hiritarrei eragiten dien edozein arlotan garatutako ekimen onena saritzeko, **Gizarte Kontseiluaren Saria** sortu zuen 2022an. Tartean daude hiriarentzat lehentasunezkoak jotzen diren gaiak lotutako proiektuak, hala nola, adinekoei, belaunaldien arteko erreleboari, immigrazioari eta donostiar berriei, klima-aldaketari eta auzoei lotutakoak.

Saria urtero banatzen da, eta irabazleari ez ezik, beste bi ekimen finalistari ere ematen zaie diploma.

2.- Hautagaitzak aurkezteko baldintzak

Deialdira pertsona fisikoek, instituzioek edo erakundeek garatutako ekimenak aurkeztu daitezke, baita Gizarte Kontseiluko kideek landutako proiektuak ere (**ez, ordea, Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko kideenak, epaimahai gisa jarduten baitute**).

3.- Balorazio-irizpideak

Proposamenak baloratzeko orduan, irizpide hauek hartuko dira kontuan: **errepikatua izateko dituen aukerak, originaltasuna, indarrean daraman denbora, donostiarrei eragiten dieten arloekin lerrokatuta egotea** (1. puntu lehentasunezkoak jo diren gai horiekin ere bai), eta ondoren ezarritako **eduki- eta forma-irizpideak betetzea**.

Proposamenek honako hauek jaso beharko dituzte: **ekimenaren helburua, emaitzak eta ondorioak**. Azalpena gehienez ere 40 lerrotan eman beharko da. Ekimena hobeto ulertzeko, irudiak (gehienez 10) edota bideo bat (gehienez 7-10 minutu) aurkeztu ahal izango dira.

Proposamenak posta elektronikoz bidaliko dira Donostiako Estrategia Bulegora, **estrategia@donostiafutura.net**, 2023ko irailaren 30a baino lehen.

4.- Epaimahaia eta sariaren ebazpena

Epaimahaia Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko kideek osatuko dute, eta balorazioa egin aurretik, jasotako hautagaitzek oinarri hauetan ezarritako baldintzak

betetzen dituztela egiaztatuko dute. Baldintza horiek betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

Epaimahaiak, gainera, jasotako proposamenei buruzko informazio osagarria eskatzeko aukera izango du.

Ondoren, oinarri hauetan ezarritako forma-, eduki- eta balorazio-irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortu duten 3 ekimenak proposatuko dizkio epaimahaiak osoko bilkurari.

Epaimahaiaren eztabaidak isilpekoak izango dira, eta sarien epaiari buruzko erabakia apelaezina izango da; hala, parte-hartzaileek uko egiten diote horri buruzko edozein erreklamazio egiteari.

5.- Irabazleen jakinarazpena eta aurkezpen-ekitaldia

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuraren urteko azken batzarrean egingo da sari-banaketa ekitaldia. Ekitaldi horretan, Gizarte Kontseiluko eta Donostiako zein lurraldeko orotariko ordezkariak hartuko dute parte.

Saria eman aurretik, epaimahaiak hiru ekimen finalistei buruz hartutako erabakia jakinaraziko die interesdunei, irabazlea zein den argitu gabe; eta irabazlea sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko da. Sariaren inguruko informazioa zabaltzeko, proiektu finalistaren ordezkariak ekimena aurkeztu beharko dute bertan, eta aukeran, bideo txiki bat erabiltzeko gomendatzen zaie.

6.- Jabetza intelektualeko eskubideak eta irudi-eskubideak

Sariari buruzko informazioa zabaltzeko, Gizarte Kontseiluko Idazkaritza Teknikoak (Donostiako Estrategia Bulegoak) erakundeek edo pertsona fisikoek aurkeztutako dokumentazioa, irudiak eta logotipoa erabili ahal izango ditu, edozein komunikabideren bidez hirugarrenei egindako komunikazioetan edo argitalpenetan.

Sariaren onuradun diren erakundeek edota pertsona fisikoek, gainera, sari-banaketa ekitaldira joan beharko dute, eta ekitaldian hartutako irudiak erabiltzeko eta argitaratzeko baimena ematen diote Gizarte Kontseiluko idazkaritza teknikoari.

Irabazleek eta finalistak, azkenik, idazkaritza teknikoak kudeatutako elkarrizketak eskaintzeko eta prentsa-oharrekin kolaboratzeko konpromisoa hartzen dute, sariei buruzko informazioa zabaltzeko.